



**GAUTENA**

**JARDUEREN TXOSTENA  
2012**

# **AURKIBIDEA**

## **Aurkezpena**

### **1. Orokorra**

1.1. Aliantzak eta kolaborazioak

### **2. Kudeaketa**

2.1. Plan Estrategikoaren eta Kudeaketa Planaren segimendua

2.2. Zerbitzuak

2.2.1. Diagnostiko eta Tratamendu Zerbitzua

2.2.2. Hezkuntza Zerbitzua

2.2.3. Eguneko Arreta Zerbitzua

2.2.4. Etxebizitza Zerbitzua

2.2.5. Familiei Laguntzeko Zerbitzua

2.3. Kalitatea eta ezagutza

2.3.1. Kalitate-ereduak eta -sistemak aplikatzea

2.3.2. Ezagutzaren kudeaketa

2.3.3. I+G+b

2.4. Beste jarduera batzuk

2.4.1. Urteko sentsibilizazio-kanpaina

2.4.2. Autismoari buruzko hitzaldi-zikloa

2.4.3. Lan-bisitak

### **3. Urteko kontuak**

3.1. Egoeraren balantzea

3.2. Eraitzen kontua

## **Aurkezpena**

Txosten honen bidez, gure erakundearen nondik norakoen berri ematera gatoz, aurtengoan ere bazkideei, laguntzaileei, herri-administrazioei eta gure bilakaeraren inguruko interesa duten bestelako eragileei informazioa helarazteko.

2012an hainbat doikuntza eta izozketa egin ditugunez gure finantzaketan, jardueraren bat bertan behera utzi behar izan dugu, eta kuota batzuk handitu (Familiei Laguntzeko Zerbitzuko asteburuetakoa eta aldi baterako egonaldien programan, kasu). Gainerako zerbitzuak, ostera, ohi bezala mantendu ditugu.

Kudeaketaren ikuspegitik, 2012an hirugarren plan estrategikoa aplikatzen hasi gara GAUTENAn; 2012-2015 aldirako Plan Estrategikoa, alegia. Hiru lerro estrategiko ditu:

### **■ PERTSONAK, FAMILIAK, GIZARTEA:**

Bizi Proiektuaren bidez, pertsona bakoitzaren bizi-kalitatea hobetzea, eta berdintasuna eta irisgarritasuna ardatz izango dituen gizarte-partaidetza eraginkorra sustatzea.

### **■ LAGUNTZA ZERBITZUAK:**

Laguntza-zerbitzuen sistema hobetzea, kalitatean eta jasangarritasunean oinarrituta, adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen eta beren familien beharrak bizi-ziklo osoan asetzeko.

### **■ ERAKUNDEAREN GARAPENA ETA LANKIDETZA:**

Gure erakundea hobetzen jarraitzea, hiru alderditan: kalitatea, sare-lankidetzak eta I+G+b.

Beste behin ere, eskerrak eman nahi dizkiegu GAUTENArekin bat egiten duten guzti-guztiei: autismo-espektoaren nahasmendua (AEN) duten pertsonen eta beren familiei, profesionalen, boluntarioen, laguntzaileen, ekarpenak egin dizkiguten enpresei (Auzolagun, Orona, Irizar, Ulma eta Osarten), ONCE Fundazioari, Kutxaren Gizarte Ekintzari, eta, nola ez, Euskadiko Herri Administrazioari (Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia eta udalak). Eskerrik asko, denei.

Agur bero bat,

**ZUZENDARITZA BATZORDEA**

## 1. OROKORRA

### 1.1. Aliantzak eta kolaborazioak

GAUTENAK, bere ibilbidean aurrera eginez, eta 2012-2015 aldirako Plan Estrategikoaren hirugarren ardatzean zehaztutakoarekin bat, hainbat esparru eta forotan aktiboki parte hartzen jarraitzen du, bai Gipuzkoan, bai Euskal Autonomia Erkidegoan, bai Espainian, bai Europan ere.

## 2. KUDEAKETA

### 2.1. Plan Estrategikoaren eta Kudeaketa Planaren segimendua

- 2012an, jarraipena eman diogu 2012-2015 aldirako Plan Estrategikoan eta 2012ko Kudeaketa Planean adierazitako bideari. Zuzendaritza Batzordeak eta Zuzendaritza Kontseiluak horien etengabeko segimenduan eta balioespenean parte hartzen dute.

### 2.2. Zerbitzuak

#### 2.2.1 Diagnostiko eta Tratamendu Zerbitzua

- 2012an, kasu berrien kopuruak gora egin du: 98 kasu berri diagnostikatu ditugu, eta horietatik 84 pertsonak AEN dutela egiaztatu dugu. Diagnostiko eta Tratamendu Zerbitzura bideratu ditugu.
- Arreta-modalitate berriak garatzen jarraitu dugu, haurrentzat, nerabeentzat eta gurasoentzat. Era berean, arreta goiztiarrari garrantzi berezia eman diogu.
- Azken hiruhilekoan, etxeko arreta eskaintzeko modalitate berriari dagokion lantaldea martxan jarri genuen. Psikologo batek ematen du etxeko arreta hori, talde klinikoarekin koordinatuta.

DIAGNOSTIKO ETA TRATAMENDU ZERBITZUAREN JARDUERA, 2012	
Zerbitzuan artatutako kasu berriak	98
Laguntzeko kontsultak	5541
• Ebaluazioa/diagnostikoa egiteko kontsultak	257
• Jarraipena egiteko kontsultak	384
• Banakako psikoterapiak	3673
• Taldeko psikoterapiak	1213
• Taldekoak, familiak	14

<b>Altak/bideratzeak Atzerapenaren adierazleak</b>	<b>20</b>
• Hitzordua eskatu denetik pazientea zentroan hartu arte igarotako egunak	7
• Pazientea zentroan hartu denetik lehenengo hitzordua izan arte igarotako egunak	9
• Lehenengo hitzordua izan denetik diagnostikoa itzuli arte igarotako egunak (*)	50
• Diagnostikoa itzuli denetik tratamendua hasi arte igarotako egunak	13.7

(\*) Autismoa diagnostikatzeko beharrezkoak diren proba guztiak egiteko behar den denbora ere sartzen da fase horretan. Hala ere, esan beharra dago talde klinikoarekin lehenengo lau bilerak egin ostean, familiak jada hasierako diagnostikoa izaten duela.

### 2.2.2. Hezkuntza Zerbitzua

- 2012an, sendotu egin ditugu aurreko ikasturtetik genituen hamasei gelak. Guztietan berriena arreta goiztiarreko gela da, eta Haur Hezkuntzako bost haur izaten dira bertan.
- Bi gela lekuz aldatu ditugu. Alde batetik, Aretxabaletako Kurtzebarri ikastetxe publikoan genuena Bergarako Mariaren Lagundia ikastetxera eraman dugu, Aretxabaletakoak tokiaren beharra zuelako.




Bestetik, Donostiako Compañía de María ikastetxeko gela tokiz aldatu dugu, hiru hezkuntza-zentro Summa Aldapeta ikastetxe bakarrean bildu direlako. Gure ikasleen ezaugarriak eta adina aintzat hartuta –Bigarren Hezkuntzakoak dira guztiak–, gela orain arte Marianistas izenez ezaguna zen eraikinera eramatea erabaki dugu.

Bi zentrootako irakasleek oso ondo hartu dituzte lekualdaketak, eta bai gure ikasleak bai GAUTENAKo langileak ederki egokitu dira.

- Ikasturte honetan, guztira 88 ikasle daude ikasgela egonkorretan; horietatik zortzik ikastetxea eta ikasgela egonkorra konbinatzen dituzte euren eskolatzeko-aldian.

<b>GAUTENAKO HEZKUNTZA ZERBITZUKO IKASGELAK, IKASTETXEAREN ARABERA</b>		
<b>IKASTETXEA</b>	<b>KOKAPENA</b>	<b>IKASLE KOPURUA</b>
La Salle Berrozpe Ikastetxea	Andoain	6
Mariaren Lagundia	Bergara	6

Moguel-Isasi BHI	Eibar	6
Arrateko Andra Mari	Eibar	5
La Inmaculada	Hernani	5
San José Ikastetxea - Gurutzearen Alabak	Hondarribia	6
Intxaurrondo Ikastola	Donostia	5
San Ignacio Ikastetxea	Donostia	5
La Salle Ikastetxea	Donostia	7
Karmelo Ikastetxea	Donostia	6
Oleta Ikastola	Donostia	5
Summa Aldapeta	Donostia	6
Langaitz Ikastola	Errenteria	5
La Salle San José	Zarautz	5
La Salle San José	Beasain	5
La Salle San Martzial	Irun	6
	<b>GUZTIRA</b>	<b>88</b>

-  Hezkuntza Zerbitzuko zenbait langile, GAUTENaren prestakuntza-saioetan ez ezik, beste erakunde batzuek antolatutako ikastaroetan ere izan dira; besteak beste, ondoko gai hauek jorratuz: «Zentzumen anitzeko estimulazioa», «ABA funtzionala – ikuspegi piramidalaren inguruko oinarriko prestakuntza», «Hezkuntza-gela bat IKTen bidez sortzea» eta «Integrazio sentsoriala». Prestakuntza-saio horietara bertaratzen direnen kopurua mugatua den arren, aldizka egiten ditugun klaustroetan edukia gainerako profesionali helarazten saiatzen gara.
-  Urrian, berrikuntza-talde bat osatu genuen, ikuspegi sentsorialaren aldetik laguntza handiagoa behar duten ikasleei eman beharreko arretan sakontzeko. Horrez gain, ia hogeitaz irakasleren parte-hartzeari esker, bisitak egin ditugu Itsuen Baliabideetarako Zentrora, Hegalak zentrora eta Aspacera; halaber, Kulunkaren eskutik prestakuntza jaso dugu, eta AransGi elkartearekin eta Creena zentroarekin harremanetan izan gara, laster horietara ere bisitak egiteko. Beste entitate batzuek hezkuntza-behar bereziak dituzten pertsonen ematen dieten arreta ezagutzeak gure metodologia zabaltzen laguntzen digu, eta bestelako baliabideak ezagutzen eta partekatzen.
-  Beste alde batetik, Adimen Ezintasuna dutenen aldeko Elkarleen Euskal Federazioaren (FEVAS) koordinazio-bileretan parte hartzen jarraitu dugu, hezkuntza-aldiarekin lotutako gaien inguruko segimendua egiteko. Abenduan senideekin egindako topaketan, familiek profesionali eskatuko lizkieketen eskumenak izan genituen hizpide, «Nire profesional ideala» izenburupean. Ana Casas irakasleak bideratu zuen topaketa.

### 2.2.3. Eguneko Arreta Zerbitzua

- 2012an, Eguneko Arreta Zerbitzuko zentro eta unitateetarako planifikatutako jarduera guztiak aurreikusitako moduan gauzatu ditugu.
- Jardueren plangintzara bizi-proiektuak gehitzeko asmoz, profesional guztiek hainbat tresnaren inguruko trebakuntza jaso dute 2012an, aipatutako proiektuok aurrera eramanez.

Esparru horretan, aipatu behar dugu nahasmendu dualari buruzko trebakuntza espezifiko eskaini dugula Eguneko Arreta Zerbitzuan, iaz egindakoaren osagarria.

- Zentroen eta taldeen osakerari dagokionez, aldatu egin ditugu Berrioko unitatearen osaketa eta ratioa, erabiltzaileen beharretara hobeto egokitzearen.

Unitatean, talde bat zegoen lehen, zazpi erabiltzailez eta bi profesional bezala; orain, berriz, bi talde ditugu, bosna erabiltzailekoak: batean, bi profesional daude, eta bestean, bat.

Aldaketa horien eraginez, Aieteko Eguneko Zentroko erabiltzaileen kopurua murriztu egin da; era horretan, toki gehiago daukate orain, jarduerak gauzatzeko.

- Unitatearen izaera dela-eta, altzari gehiago jarri ditugu bertan, taldearen funtzionamendu-beharrei aurre egiteko.
- Errenteriako Komunitatean antolatutako Jardunbide Egokien Jardunaldian, bertan integratutako unitateak eskulanean arloan egindako lan guztiak erakusten zituen bideo bat aurkeztu zuen.
- Beste alde batetik, Aieteko Eguneko Zentroan erabiltzaile-talde berri bat dugu, Irungo GUREAK okupazio-zentroan ikas-ekinezko praktikak egiten hasi dena. Praktika horiei esker, ingurune normalizatuagoan egin ditzakete jarduerak, bai eta beste pertsona batzuekin harremanetan izan eta lan-jarduera normalizatuak garatu ere.
- Garrantzitsua da, halaber, gure inguruko prestakuntza-entitateekin daukagun konpromisoari eustea. Horregatik, hamabost ikasle praktikak egiten ibili dira eguneko zentro eta unitateetan.
- Horrez gain, eguneko zentroetan lorezaintzan aritzeko lantalde bat osatu dugu aurrez, bazen halako lanak egiten zituen talde bat, Oriamendi Eguneko Zentroan zehazki. Orain, berriz, Aieteko talde bat ere arlo horretan arituko da, Artolamendi Eguneko Zentroan.
- Guztira 96 pertsonari eman diogu laguntza, 28 profesionalen bidez. Langile horietatik lauk lanaldi partzialeko kontratua dute, lana eta familia bateragarriak izateko kontratuak estaltzen ari baitira, bost zentro eta unitateetan.

EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA, ZENTROAREN ARABERA		
ZENTROA	KOKAPENA	ERABILTZAIL KOPURUA
Artolamendi Eguneko Zentroa	Donostia	33
Azkarate Enea Eguneko Zentroa	Donostia	19
Oriamendi Eguneko Zentroa	Donostia	22
Errenteriako komunitatean integratutako unitatea	Errenteria	12
Berioko komunitatean integratutako unitatea	Donostia	10
	<b>GUZTIRA</b>	<b>96</b>

#### 2.2.4. Etxebizitza Zerbitzua

- Zerbitzuaren egitura mantendu egin dugu, eta sei etxebizitzetako 69 plazei eutsi diegu. Hamar taldetan banatuta daude, eta bakoitzak bere antolamendua eta jarduerak ditu. Segimendu- eta koordinazio-lanetarako ere banaketa hori bera egiten da.
- 2011n, Etxebizitza Zerbitzuan instalazioak berritzeko eta hobetzeko hainbat obra egin genituen. Horien artean, Urnietako eta Txarako etxebizitzetan egindakoak dira aipagarrienak, logeletako altzariak berritu eta komunak egokitu baikenituen.
- Sendotu egin dugu Atzegi erakundeak antolatutako jardueretan dugun partaidetza, aukera paregabea ematen digutelako gure zerbitzuaz kanpoko beste pertsona batzuekin harremanetan izateko. Ildo beretik, Urnietako Udalak antolatutako kirol-jardueretan ere parte hartzen ari gara.
- Martxoan, esku-hartze profesionalaren ebaluazio etikoa egin genuen. Gurean diseinatutako tresna bat aplikatuz, etxebizitza-zerbitzuko hogeitantaldek hartu zuten parte prozesuan. Emaizak lortu ostean, lantalde guztiei balioespenaren berri eman genien.
- Osasun-arloaren barruan, Etxebizitza Zerbitzuko pertsonen elikadura-ohituren inguruko ikerketa bat egin dugu, Mirian Nieto nutrizio-adituarekin batera. Lehenik eta behin, proba bat egin genion erabiltzaile bakoitzari, kontsultan, gorputz-osaerari buruzko ideia orokorra izateko; ondoren, elikadura-ohitura onak izateko aholkuak eman genizkion haietako bakoitzari.

ETXEBIZITZA ZERBITZUA, ZENTROAREN ARABERA		
ZENTROA	KOKAPENA	ERABILTZAIL LE KOPURUA
Oriamendi Etxea	Donostia	15
Goizalde	Donostia	14



Zarategi pasealekuko etxebizitza	Donostia	8
Txara	Donostia	12
Azkorte Etxea	Urnieta	15
Berio	Donostia	6
	<b>GUZTIRA</b>	<b>69</b>

## 2.2.5. Familiei Laguntzeko Zerbitzua

- Zerbitzuaren ohiko arlo guztiak lehenagoko baldintza beretan mantendu ditugu. Dakizuen moduan, zerbitzuak aisialdia eta denbora librean ditu ardatz.
- Aurten, familia-talde berri bat osatu dugu, komunikazio-tresnen gainean lan egiteko: komunikazio-plan estrategikoak (KPE), e-Mintza, programa digitalak... Taldea zenbait igandetan bildu da, goizez; edonola ere, e-Mintzari (Mintzalde) buruzko ikerketa bat dela-eta, bertan behera utzi behar izan dugu.

FAMILIA TALDEAK		
TALDEA	PARTE HARTZAILEAK	EDUKIA
ASPERGER	35 parte-hartzaile	Asperger sindromea duten pertsonen guraso guztiei eragiten dieten gaiak
FAMILIA BERRIAK	15 familia	Elkarri laguntzea
FAMILIENTZAKO ESKOLA	15 familia	Taldeari interesatzen zaizkion gaiak
EIBAR INGURUA	15 parte-hartzaile	Inguruko familia berriak
ZUMARRAGA INGURUA	15 familia	Taldeari interesatzen zaizkion gaiak
ASPERGER SINDROMEAK DUTEN HELDUAK	10 pertsona	Taldeari interesatzen zaizkion gaiak
KOMUNIKAZIO TALDEA	25 pertsona	Komunikazio-tresnen inguruko lana: KPEak, e-Mintza...

- Igande batzuetan ekintzak garatzen jarraitu dugu, bai eta iaz hasitako zine egokitua antolatzen ere. Horiez gain, Txiki Parkean jarduera bat edo beste gauzatu dugu.
- Apirilaren 2an Autismoaren Nazioarteko Eguna izan zen, eta egun hori ospatzeko hainbat jarduera antolatu genituen.
- Bestalde, Gabonetan Kursaal jauregiko eta FICOBako PIN parkeetan izan ginen, berriro ere.

- Aurreko urteetan bezala, familiei atsedena emateko ATSEDEN programa eta familiek parte hartzeko GERTU programa garatu ditugu. 2012an, Atsedeen programak aldaketak izan ditu: asteburu gutxiagotan egin dugu, eta familien kuotak igo egin dira, finantzaketaren arloan izandako murrizketari aurre egiteko.
- Gure iritziz, aisialdia ezinbesteko alderdia da artatzen ditugun pertsonen laguntzeko. Funtsezkoa da bai garapen pertsonalari, bai gizarteratzeari dagokienez, eta, aldi berean, familiei laguntza emateko balio du.
- Aisialdi-jarduerak gauzatzeko, boluntarioen laguntza ezin estimatuzkoa jasotzen dugu. Lerro hauen bidez, haien ekarpena nabarmendu nahi dugu, eta eskerrak eman nahi dizkiegu.
- 2012aren amaieran, LAGUNTZAILE PROGRAMA garatzen hasi ginen, boluntario-lanaren bidez familien zenbait behar asetzeko helburuarekin.

ESKOLAZ KANPOKO JARDUERAK			
EGITARAUA	JARDUERA	PARTE HART.	ZAINTZ.
LARUNBATAK, GAZTEAK	DONOSTIA (AIETE) 16:00-20:00	12	5
IGANDEAK, GAZTEAK	DONOSTIA 16:00-20:00	8	2
IGERILEKUA, HAURRAK	DONOSTIA (ALTZA), astelehen, asteazken eta ostegunetan	10	3
IGERILEKUA, GAZTEAK	DONOSTIA (ANOETA), astelehen eta asteazkenetan	8	2
AISIALDIA, ZARAUTZ	ZARAUTZ (ATZEGIko lokala), astearte eta ostegunetan	4	3
AISIALDIA, ZUMARRAGA	ZUMARRAGA, larunbatetan (16:00-20:00)	5	3
LARUNBATAK, HAURRAK	DONOSTIA (BERIO)	4	3

- Era berean, Asperger sindromea duten pertsonekin azkenaldian egindako jarduerak garatzen jarraitu dugu.

ASPERGER			
EGITARAUA	JARDUERA	PARTE HART.	ZAINTZ.
LARUNBATAK, GAZTEAK	DONOSTIA 16:00-20:00	10	2
UDALEKU IREKIAK	Ibilaldiak uztailean 10:00-14:00	7	2
IRTEERA	SENDA VIVA Uztailak 26-30	14	3
ANTZERKIA	DONOSTIA (BERIO)	14	3

UDAKO EGITARAUA			
EGITARAUA	JARDUERA	PARTE HART.	ZAINZ.
UDALEKU INTEGRATUAK	<b>Autismo espektroaren nahasmendua (AEN) duten haurrek GAUTENAtik kanpoko programetan parte hartzea</b>	<b>15</b>	<b>10</b>
UDALEKU IREKIAK	<b>AEN duten haur eta gazteentzako paseoak</b>	<b>65</b>	<b>34</b>
	Zarautz	3	2
	Elgoibar	7	4
	Arrasate	3	2
	Donostia, gazteak	10	5
	Donostia, haurrak	25	14
	Zumarraga	3	2
	Irun	8	2
Hondarribia	6	3	
ABUZTUKO UDALEKUAK	<b>Hamabi eguneko egonaldiak ostatu ezberdinetan</b>	<b>124</b>	<b>79</b>
	Abuztuak 1-15, DONEZTEBE (helduak)	14	12
	Abuztuak 1-12, DERIO (helduak)	18	10
	Abuztuak 1-12, GASTEIZ (helduak)	16	8
	Abuztuak 1-12, SAN ASENSIO (gazteak)	14	10
	Abuztuak 1-15, ORIAMENDI (helduak)	11	6
	Abuztuak 3-9, BERIO (haurrak)	12	8
	Abuztuak 16-27, DONEZTEBE (haurrak)	17	13
	Abuztuak 16-27, SAN ASENSIO (gazteak)	22	12

- Familiei Laguntzeko Zerbitzuak, ohiko jarduera horiek antolatzeaz gain, laguntza eta orientabidea ematen die GAUTENAKo familiei. Jimmy Brosa, Ainara Sanz (gizarte-langileak) eta Maitane Iza (aisialdiko koordinatzailea) dira zerbitzu horretako langileak.

## 2.3. Kalitatea eta ezagutza

### 2.3.1 Kalitate-ereduak eta -sistemak aplikatzea

- 2012an, AENOR erakundearen ikuskapena aldi baterako baztertzea erabaki genuen; besteak beste, ikuskapenaren prozedurek gure entitatean zuten ezarpen-maila ikusita, eta EFQM prozesuetan zuen integrazio-maila balioetsi ostean.

- Urtearen amaieran, kanpoko egiaztapena egin genuen, Euskaliteko ebaluazio-talde batekin, EFQM ereduari jarraiki. Horren bidez, hobekuntza-esparruak identifikatu genituen.
- Era berean, formalki FEAPS kalitate-ereduaren arabeko egiaztatze-prozesuari lotuta jarraitzen dugu. 2012-2015 aldirako Plan Estrategiko berria hastearekin batera, eredu horren hiru kalitate-ardatzen autoebaluazioa egin genuen: etika, bizi-kalitatea eta kudeaketa. Ereduaren eskakizunei jarraiki egin dugun hirugarren autoebaluazioa izan da, eta 2015aren amaieran egingo dugu hurrengoa.
- Halaber, bizi-proiektuaren, etikaren eta eskubideen alde lan egiten dihardugu, bai eta hobekuntza taldeak hainbat esparrutan sortzea sustatzen ere: zahartzea, Asperger sindromea, enplegua, teknologia berriak...

### 2.3.2. Ezagutza kudeatzea

- GAUTENAREN 2012ko prestakuntza-plana kronograma honen arabera garatu zen:

Jarduera	Urt.	Ots.	Mar.	Api.	Mai.	Eka.	Uzt.	Ira.	Urr.	Aza.	Abe.
Jokabide-laguntza positiboa eta euste fisikoko teknikak											
FEAPS kalitatea											
Ebaluazio etikoa											
Lehen sorospenak											
Nahasmendu duala											
Jardunbide egokiei buruzko jardunaldia											
KPEn bidezko komunikazio-sistema											
Nahasmendu obsesibo-konpulsiboa artatzeko jarraibideak											
Oinarrizko prestakuntzako modulua											
KPEn bidezko komunikazio-sistema											
Zuzendaritza-trebetasunak eta lidergo eraginkorra											
Psikologia positiboa											
Urrezko Qaren ebaluaziorako prestakuntza, EFQM ereduari jarraiki											
AENen tratamendu farmakologikoa											
MINTZALDE proiektua											
PECS aurreko ikaskuntzak											
Jarduera fisiko eta psikomotrizitateko saioak											
Power Point aurreratua											
Dietetika eta elikadura											
Bizi-proiektua aplikatzea											
Erregistroak eta lan-tresnak erabiltzea											

Zerbitzu guztietako langileentzako prestakuntza orokorra

Hezkuntzaren arloko prestakuntza espezifikoa	
Eguneko Arreta Zerbitzuko langileentzako prestakuntza espezifikoa	
Mediku eta psikologo taldearentzako prestakuntza espezifikoa	
Etxebizitza-zerbitzuko langileentzako prestakuntza espezifikoa	
Zuzendaritza-taldearentzako prestakuntza	
Zerbitzu zentralerako langileentzako prestakuntza	
Boluntarioentzako eta ordezkapenak egiten dituzten langileentzako prestakuntza	
Familientzako laguntza-zerbitzuko langileentzako prestakuntza	

### 2.3.3. I+G+b

Hauek dira alor honetan martxan jarri ditugun azterketa- eta ikerketa-lerro nagusiak:

- «Tratu txarren definizioa adimen- eta garapen-desgaitasunaren alorrean». FEVAS erakundearekin lankidetzan.
- «Gizarte-enplegu aurreratua eta gaitasunen araberako kudeaketa». FEVAS erakundearen babesarekin.
- «Mintzalde proiektua», e-Mintza tresnaren eraginkortasuna aztertzen duena. Poliklinika Gipuzkoako Carlos Elósegui Fundazioarekin lankidetzan.
- «PROINSO proiektua», adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen erabakiak hartzen laguntzeko aplikazioa. GAIA erakundearekin lankidetzan.
- «Adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonen emandako osasun mentaleko arretaren ebaluazioari buruzko ikerketa». FEVAS esparruaren barruan.

## 2.4. Beste jarduerak

### 2.4.1. Urteko sentsibilizazio-kanpaina

- 2012an ere, autismoaren inguruko sentsibilizazio-kanpaina egin zuen GAUTENAK. Urrian, iragarkiak emititu genituen irratian, eta autismoa dutenen bi ama eta nahasmendu hori duen gazte bat mintzatu ziren, halaber, komunikabide horretan.

#### 2.4.2. Hitzaldi-zikloa

- Urtero legez, GAUTENAK hitzaldi-zikloa egin zuen urrian, KUTXAK Donostiako Arrasate kalean duen aretoan.
- Hainbat adituk parte hartu zuten. Gonzalo Hervás psikologo eta Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko irakasleak hitzaldi hau eman zuen: «Nola landu sendotasun emozionala espektro autistaren nahasmendua duten pertsonen familietan». Erromako Unibertsitate Campus Biomedikoko Antonio Persico doktoreak, haurren eta nerabeen neuropsikiatriako irakasle elkartuak eta autismoaren genetika alorreko adituak, «Genetika eta autismoa: gaur egungo inplikazio klinikoak» gaia landu zuen. Azkenik, Joaquín Fuentes doktorea mintzatu zen, Poliklinika Gipuzkoako Haur eta Gazte Psikiatria Zerbitzuko burua eta GAUTENAKo ikerketa-aholkularia, eta «Autismoari buruzko ikerketaren azken emaitzak» jorratu zuen.
- Jende ugari izan zen zikloan, eta oso balorazio ona jaso zuen. Autismoa dutenen senideak, profesionalak, ikasleak eta gaiarekiko interesa dutenak bertaratu ziren.

#### 2.4.3. Lan-bisitak

- Beste alde batetik, erakundeak Espainiako hainbat autonomia-erkidegotako ordezkariak eta beste herrialde batzuetako bisita taldeak hartu ditu. Guztira bederatzi erakunde izan dira GAUTENAn.

Otsailak 15: Frantziako ama talde bat.

Maiatzak 11: CEFPI (Portugal)

Maiatzak 18: FEAPS (Nafarroa)

Maiatzak 23: Gorbeialde Hezkuntza Bereziko Ikastetxea

Ekainak 14: Donata Vivanti

Ekainak 19: Suediako ordezkariak bat.

Uztailak 20: DINCAT (Katalunia)

Uztailak 21: Matt Savage (AEB)

Azaroak 8: Nafarroako Autismo Elkarte

### 3. URTEKO KONTUAK

#### 3.1. EGOERAREN BALANTZEA

**ETA BESTELAKO GARAPEN NAHASMENDU OROKORTUAK DITUZTEN**  
**ITSONEN GURASOEN GIPIZKOAKO ELKARTEA)**  
**EGOERAREN BALANTZEA**  
**2012KO EKITALDIA, 2012KO ABENDUAREN 31N AMAITUTA**  
**(eurotan)**

2012	2011	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2012	2011
5.049.052	5.337.837	A) ONDARE GARBIA	5.194.664	5.438.931
703.578	700.122	A-1) Funts propioak	291.002	286.729
4.336.558	4.629.558	I. Sorrera-zuzkidura/Gizarte-funtsa	286.729	284.140
8.916	8.157	IV. Ekitaldiko soberakinak	4.273	2.589
		A-3) Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	4.903.662	5.152.202
1.120.647	1.151.693	B) PASIBO EZ KORRONTEA	93.951	45.486
117.809	75.848	I. Epe luzeko hornidurak	93.951	45.486
447.741	318.290	PASIBO KORRONTEA	881.084	1.005.113
555.097	757.555	II. Epe motzeko hornidurak	16.400	38.545
		VI. Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko bes	852.923	783.014
		VII. Epe motzeko periodifikazioak	11.761	183.554
<b>6.169.699</b>	<b>6.489.530</b>	<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>6.169.699</b>	<b>6.489.530</b>

### 3.2. EMAITZEN KONTUA

**GAUTENA (AUTISMOA ETA BESTELAKO GARAPEN NAHASMENDU OROKORTUAK DITUZTEN  
PERTSONEN GURASOEN GIPUZKOAKO ELKARTEA)  
EMAITZEN KONTUA  
URTEKO EKITALDIA, 2012KO ABENDUAREN 31N AMAITUA  
(eurotan)**

	2012	2011
1. Entitatearen jarduera propioak eragindako sarrerak	8.068.461	7.827.750
7. Beste ustiapen diru-sarrera batzuk	4.723	13.807
8. Langile-gastuak	(6.183.972)	(5.876.331)
9. Beste ustiapen-gastu batzuk	(1.877.349)	(1.945.344)
10. Ibilgetuaren amortizazioa	(330.664)	(349.825)
11. Ekitaldiko emaitzara lekualdatutako diru-laguntzak, dohaintzak eta kapital-legatuak, jarduera propioari dagozkionak	316.449	336.171
13. Narriadura eta ibilgetua besterentzeagatiko emaitza		500
14. Beste emaitza batzuk	12.427	1.116
A) USTIATZE EMAITZA	10.075	7.844
14. Finantza-sarrerak	554	574
15. Finantza-gastuak	(6.356)	(5.829)
B) EMAITZA FINANTZARIOA	(5.802)	(5.255)
C) EMAITZA, ZERGAK ORDAINDU AURRETIK	4.273	2.589
D) EKITALDIKO SOBERAKINA	4.273	2.589